



# PABLO SARASATE NAZIOARTEKO HAMAIKAGARREN BIOLIN LEHIAKETA

**Epaimahaiburua:**  
Vladimir Spivakov

2011ko Irailaren 14tik 21era. Iruña. Espainia

**2012** CONTIGO  
AVANZAMOS



Gobierno  
de Navarra



CONCURSO  
INTERNACIONAL  
DE VIOLIN  
P A B L O  
S A R A S A T E  
P R E S I D E N T E  
V L A D I M I R  
S P I V A K O V

**ERREGELAMENDUA**

# 1. ONARTUA IZATEKO ARAUAK

## 1.1. Parte-hartzaileak

Edozein nazionalitatetako biolin-jotzaileek har dezakete parte lehiaketan, betiere 27 urte baino gehiago eta 15 baino gutxiago ez badituzte lehiaketako probak hasten direnean.

Ezin izanen dira berriz ere aurkeztu aurreko urteren batean lehiaketa honetako lehen, bigarren edo hirugarren saria jaso duten biolin-jotzaileak.

## 1.2. Eskabideen aurkezpena

Lehiaketan parte hartu nahi duten pertsonek postaz bidali beharko dituzte, igorpen data agerian, inskripzio agiria, behar bezala bete, eta gainerako agiriak, ondoan ematen den helbidera. Agiriak 2011ko maiatzaren 4a baino lehen, egun hori barne, igorri beharko dira.

Kultura eta Turismo Departamentua  
Administrazio Aferetarako Bulegoa  
Pablo Sarasate Nazioarteko Biolin Lehiaketa  
Navarrería, 39  
31001 Iruña. Espainia

Halaber, lehiaketarako bulegoetan posta horren berri izan dezaten, izangaiei aholkatzen zaie, posta igortzen deneko postetxearen ziurtagiria eta igorlearekin harremanetan jartzeko datuak bidal ditzatela epe berean (faxaren edo posta elektronikoaren bidez). Datu horiek interesduna bilatzeko erabiliko dira, agiriak iritsi ezean.

Eskaerari, nahitaez, ondoko agiriak erantsiko zaizkio:

- Izena emateko orria, behar den bezala sinatuta eta datu pertsonal hauek sartuta:
- Kalitateko grabazio bat, DVD (0 eremua/unibertsala edo 2 eremua/Europa) edo CD formatuan. Bertan bilduko da eskatzailearen saio bat, behean aipatuko diren bi piezak jotzen ari dela. Grabazio hau grabazio datarekin, biolin-jotzaileen izenekin eta jotako obrek in identifikatuko da. Eskatzaileak, nahi badu, igor dezake **violin@cfnavarra.es** helbidera, artxibo bat grabazio horrekin (WMV, DIVX, MP3 formatua. Fitxategi erantsiak ez ditu 20 mega baino gehiago izanen).  
P. Sarasate. Lehiakideak aukeratutako pieza bat.  
N. Paganini. Lehiakideak aukeratutako capriccio bat.
- Currículum vitae-a, gutxi gorabehera 200 hitz dituena.
- Karneterako argazki bat, berriki egina (identifikatzeko, atzeko aldean izen-deiturak idatzirik). Antolatzaileek erabiliko dute hautaprobetako eskuo programak egiteko.
- Lehiakidearen adina eta nazionalitatea egiaztatzen dituen NANaren edo pasaportearen fotokopia. Agiriaren zerbakiak ere garbi agertu behar du.
- Bere irakasleak egindako aurkezpen gutun bat eta musikari aipagarri batek egindako beste bat.

Lehiakideek ezin izanen dute aldatu izena emateko orrian aurkeztutako programa, lehiaketaren antolatzaileek edo epaimahaiak espresuki eskatuta ez bada.

Inola ere ez dira itzuliko aurkeztutako agiriak.

## 1.3. Izena eman duten pertsonak hautatzeko prozesua

Izena emateko epea bukatu ondoren, parte-hartzaileen hautapena eginen da aurkeztutako dokumentazioaren arabera.

Parte-hartzaileek arautegi honetako 1.1 puntuan ezarritakoa betetzen badute, Genevako Musikako Lehiaketan Mundu Federazioko eta Sarasate Lehiaketa Nazionaleko 2006. urtearen ondoren izan diren lehiaketetan (urte hori barne) lehen, bigarren eta hirugarren saria irabazi badute, hautapropa horietatik salbuetsita geldituko dira, baita izen ematea ordaintzetik ere. Lehiakide horiek irabazle direla idatziz adierazi beharko dute eta horren agiria aurkeztu.

2011ko ekainaren 23tik aitzina hautaketaren emaitza jakinaraziko zaie izena eman dutenei. Emaitzak lehiaketaren web-orrian jakinaraziko dira, eta izena ematen dutenei ere jakinaraziko zaie bakoitzaren helbidera bidalita, ahal dela posta elektronikoaren bidez. Jakinarazpen horrekin batera lehiaketan parte hartzearekin loturiko informazio jakingarria bidaliko zaie.

## 1.4. Inskripzio kuota

Lehiaketan onartuak diren lehiakideek 2011ko uztailaren 4a baino lehenago 60 euroko kuota ordaindu izanaren ziurtagiria aurkeztuko dute. Izena emateko kuota hori Nafarroako Kutxako 2054/0093/38/110.000861.8 kontuan ordainduko da Iruñeko Gazteluko Plaza 2ko bulegoan, 31001. Swift: CANVES2P, IBAN ES9820540093381100008618, Nafarroako Gobernu-Pablo Sarasate Lehiaketaren izenean.

Izena emateko kuota ez da inoiz itzuliko.

2011ko uztailaren 4a baino lehenago inskripzio kuota sartu ez duten pertsona hautatuak lehiaketatik kanpo geldituko dira.

### **1.5. Parte-hartzaileentzako laguntzak**

Lehiaketaren antolamenduak ordainduko ditu bigarren kanporaketara pasatzen diren lehiatzaileen lo eta gosari gastuak (eta piano-jotzaile laguntzaileenak, halakorik baldin badute), irailaren 17tik lehiaketa bukatu bitarteko egunei dagokiena. Hotelaren izena garaiz adieraziko da.

### **1.6. Piano-jotzaile laguntzailea**

Antolatzaileek piano-jotzaile laguntzaile bat jarriko dute izena emateko orrian hala eskatzen duten lehiakideentzat.

## **2. SARIAK**

Epaimahaia ez dago behartuta sari guztiak ematera; egoki iritiz gero, baten bat eman gabe utz dezake.

Epaimahaia da erregelamendu honetan aipatzen diren sari eta ikasteko diru-laguntza guztiak emateko gaitasuna duen organo bakarra, entzuleek ematen dutena izan ezik.

Sariak eta ikasteko diru-laguntzak zatiezinak dira. Zenbatekoari dagokion atxikipen fiskala aplikatuko zaio, indarra duen legeriaren arabera.

Sari ofizial bat jasotzeko nahitaezkoa da azken probara iristea.

Ondoko sariak ditu lehiaketak:

### **2.1. Sari ofizialak**

- Pablo Sarasate lehen saria: 10.000 €
- Bigarren saria: 7.000 €
- Hirugarren saria: 5.000 €

### **2.2. Sari bereziak**

- “Bilaketa” saria, 3.000 eurokoa, Agoizko Bilaketa Elkarteak emana, Pablo Sarasateren obren interprete hoberenarentzat.
- 1.500 euroko saria, entzuleek emana, eta Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioak diruz hornitua, azken probara iritsi den lehiakide bati.
- 1.500 euroko saria, lehiakideren batek ekarritako pianista laguntzaile batentzat.

### **2.3. Ikasketa poltsak**

- Ikasteko lau diru-laguntza, bakoitza 1.500 eurokoa gehienez ere.
- Ikasteko bi diru-laguntza Espainiako lehiakideentzat, 1.500 eurokoak gehienez ere.

### **2.4. Emanaldiak**

Pablo Sarasate lehenbiziko saria irabazten duena Camerata Portuguesa Cascais & Oeirasek, Bilboko Orkestra Sinfonikoak, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak eta Extremadurako Orkestra Sinfonikoak kontratatuko dute, 2012-2013 edo 2013-2014 denboraldietan jotzeko.

Pablo Sarasate lehenbiziko saria irabazten duena ondoko entitateek kontratatuko dute 2011/2012 denboraldian biolin eta piano kontzertu bana eman dezan: Zaragozako Auditorioa, Bartzelonako Societat i Cultura FUSIC Fundazioa, Gasteizko Vital Kutxa, Madrilgo Musikako Goi Mailako Errege Kontserbatorioa (Sarasatek ikastetxe horri oparitu zion Stradivarius biolinarekin), Burgosko Elkarte Filarmonikoa, Pontevedrako Elkarte Filarmonikoa eta Vigoko Elkarte Filarmonikoa.

Lehendabiziko saria irabazten duenak kasuan kasuko entitatean beren ohituren arabera ezartzen diren baldintzetan hartuko du parte lehen aipatutako kontzertu eta emanaldietan, betiere interesatuarekin baldintzei eta programaren edukiarri buruz akordio bat lortuz gero.

Emanaldien zerrenda eguneraturik egonen da uneoro lehiaketaren web-orri honetan: [www.cfnavarra.es/sarasate](http://www.cfnavarra.es/sarasate).

### **2.5. Diplomak eta bestelakoak**

Lehiakide sarituek irabazle izan direla egiaztatzen duen diploma jasoko dute.

Azken proban parte hartu baina saririk jasotzen ez duten lehiakideek diploma bat jasoko dute, proba horretan parte hartu dutela egiaztatzen duena.

### 3. NAZIOARTEKO EPAIMAHAIA

Vladimir Spivakov biolin-jotzaile bikaina izanen da lehiaketako mahaiburua.

Epaimahaia Kultura eta Turismo kontseilariak izendatuko du. Biolina jotzen, kritikatzan edo irakasten jantziak diren nazioarteko gutxienez zazpi kidek osatuko dute epaimahaia.

Epaimahaikideren bat lehiakide baten irakaslea bada, edo azken bi urteotan izana bada, ezin izanen du parte hartu kanporaketetan lehiakide horri buruzko erabaki eta bozketa bakarrean ere. Orobat, bere ikaslea lehiakideetako bat bada, ezin izanen du parte hartu kanporaketetan lehiakideei buruzko erabaki eta bozketa bakarrean ere.

Epaimahaiaren erabakiak apelaezinak izanen dira.

Antolatzaileek garaiz emanen diete aditzera lehiakideei Epaimahaia behin betikoz nork osatzen duten.

### 4. PROBEN PROGRAMA

#### 4.1. Lehenbiziko kanporaketako programa

Lehenbiziko kanporaketan obra hauek jo beharko dira, pianoak lagundurik:

1. J. S. Bach. Mi maiorreko BWV 1042 kontzertua. Epaimahaia erabakiko du obra horretako zer mugimendu joko d(it)uen lehiakideak.
  2. N. Paganini. Capriccio bat, 1., 2., 3., 5., 7., 9., 10., 13., 15., 17., 19. edo 24.aren artetik hautatu beharrekoa.
  3. P. Sarasate. Norberak hautaturiko obra, pianoak lagunduta.
- Proba honek 20 bat minutu iraunen du lehiakide bakoitzarentzat.

Epaimahaia Bigarren Probara ailegatu direnen izen-zerrenda emanen du eta bakoitzak noiz hartu behar duen parte jakinaraziko. Bigarren Probara 10 lehiakide pasatuko dira, gehienez ere.

#### 4.2. Bigarren kanporaketako programa

Bigarren kanporaketa proban ondoko bost multzo hauetako bakoitzetik aukeratutako obra bat interpretatu beharko da, pianoaren laguntzarekin:

1. W. A. Mozart. Kontzertu hauetakoren bateko lehen mugimendua, kadentziarekin:
  - 2 zenbakia duena Re maiorrean KV 211.
  - 3 zenbakia duena Sol maiorrean KV 216.
  - 5 zenbakia duena La maiorrean KV 219.
2. L. v. Beethoven. 3. sonata Mi bemolean, op. 12. Epaimahaia erabakiko du obra honetako zer mugimendu joko dituzten bigarren kanporaketara ailegatu diren lehiakideek. Sonata jotzeko, lehiakideek partitura erabil dezakete.
3. Pieza virtuoso bat, ondoko musikagile hauetako batena, aukeran: A. Bazzini, W. H. Ernst, N. Paganini, M. Ravel, C. Saint-Saëns, K. Szymanowski, H. Vieuxtemps, H. Wieniawski, E. Ysaÿe.
4. Obra garaikide gisa Jordi Cervellóren Perpetuum Mobile joko du lehiatzaileak. Lehiaketak partitura igorriko die hala eskatzen duten lehiakideei.
5. P. Sarasate. Obra bat aukeran, 1. probakoa ez dena (pianoarekin).

Proba honek 50 bat minutu iraunen du lehiakide bakoitzarentzat.

Epaimahaia azken probara ailegatu direnen izen-zerrenda emanen du eta bakoitzak noiz hartu behar duen parte jakinaraziko. Azken Probara 3 lehiakide pasa daitezke gehienez ere.

#### 4.3. Azken probaren programa

Azken proban lehenbiziko multzoko obra bat, aurreko probetan jo ez duena, interpretatuko du lehiakideak, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren laguntzarekin, bai eta bigarren multzoko musikari baten biolin eta Orkestrarako kontzertu bat ere, hurrenkera horretan, hurrengo programatik aukeratuta:

1. P. Sarasate. Ondoko obra hauetako bat, orkestraren laguntzaz:
  - "Faustotik" harturiko fantasia, Op. 13.
  - Ijitoen ohiturak (Zigeunerweisen), Op. 20.
  - Zapateadoa, Op. 23, 2. zk.
  - Euskal capriccioa, Op. 24.
  - "Carmendik" harturiko fantasia, Op. 25.
  - Sarrera eta Tarantella, Op. 43.

2. Ondoko kontzertu hauetako bat, lehiakideak aukeratu:

- L.v. Beethoven. Biolin eta orkestrarako kontzertua, Re maiorrean. Op. 61.
- J. Brahms. Biolin eta orkestrarako kontzertua, Re maiorrean. Op. 77.
- A. Dvorak. Biolin eta orkestrarako kontzertua, La minorrean. Op. 53.
- F. Mendelsshon. Biolin eta orkestrarako kontzertua, Mi minorrean. Op. 64.
- N. Paganini. Biolin eta orkestrarako 1. kontzertua, Re maiorrean. Op. 6.
- S. Prokofiev. Biolin eta orkestrarako 1. kontzertua, Re maiorrean. Op. 19.
- J. Sibelius. Biolin eta orkestrarako kontzertua, Re minorrean. Op. 47.
- P. Tchaikovski. Biolin eta orkestrarako kontzertua, Re maiorrean. Op. 35.

Epaimahaiari iruditzen bazaio denbora gehiegi hartuko duela, aukeratutako kontzertuaren mugimenduren bat kentzea proposatu ahalko dio lehiakideari.

Proba honek 50 bat minutu iraunen du lehiakide bakoitzarentzat.

Proba bukatutakoan, Epaimahaiak azken emaitza jakinaraziko du, emandako sarien zerrenda osoarekin batera.

## 5. LEHIAKETAKO EGUTEGIA ETA HURA GARATZEKO ARAUAK

### 5.1. Lehiaketaren ibilbidea

Lehiaketak fase hauek izanen ditu, eta honako egunotan:

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
<b>MAIATZA</b>			<b>4</b> Izena emateko azken eguna				
<b>EKAINA</b>				<b>23</b> Hautatutakoan berri emanen da			
<b>UZTAILA</b>	<b>4</b> Inskripzio-kuota ordaintzeko azken eguna						
<b>IRAILA</b>			<b>14</b> Zozketa	<b>15</b> 1. kanporaketa	<b>16</b> 1. kanporaketa	<b>17</b> 2. kanporaketa	<b>18</b> 2. kanporaketa
	<b>19</b> Probasaioa	<b>20</b> Probasaioa	<b>21</b> Finala Sarien banaketa				

Probak hasi baino lehen, eta lehiaketako egutegiaren arabera, lehiakideen aurkezpena egingen da, bai eta probetan nolako hurrenkeran arituko diren erabakitzeko jendaurreko zozketa ere. Egintza hori irailaren 14an egingen da, 10:00etan, lehiaketako web-orriaren bidez adieraziko den tokian. Parte-hartzaile guztiak behartuta egonen dira bertara joatera, 30' lehenago eta behar den bezala dokumentatuak (pasaportea, nortasun agiri nazionala etab.).

Lehiakide bakoitzak bere piano-jotzaile laguntzailearekin saioa egiteko eskubidea dauka, erabakiko den aretoan eta kanporaketa proba bakoitza hasi baino lehen, bai eta azken probaren aurretik orkestrarekin entsegu bat egiteko eskubidea ere.

Lehiakide guztiak buruz interpretatuko dute beren programa, pieza garaikidea eta 2. kanporaketako Beethovenen 10. sonata izan ezik.

Jendearendako irekiak izanen dira lehiaketaldi guztiak.

Epaimahaiak proba bakoitzaren ondoren kanporatutako lehiakideak hartuko ditu, hala nahi badute, beraien joaldiari buruzko iritzia eman diezaien.

### 5.2. Lehiaketaren emankizuna edo/eta grabaketa

Antolatzaileek lehiaketakoaldiak audio eta bideoan grabatzeko eskubidea beraientzat hartzen dute. Lehiaketako aldiren bat zuzenean edo diferituan irratiz edo telebistan emateak ez die ekarriko inolako eskubiderik lehiakideei.

### 5.3. Gorabeherak

Epaimahaiak hartuko ditu lehiaketan gertatzen diren gorabehereri buruzko erabakiak, eratuta baldin badago, edo, Epaimahaia eratu aurretik izaten badira, Kultura eta Turismo Departamentuak.

Erregelamendu honen edukia interpretazioari buruzko eztabaidarik sortzen baldin bada, Nafarroako Aldizkari Ofizialean espainolez argitaratutako testuak izanen du balioa.

Parte-hartzaileek erregelamendu hau onartzen dute lehiaketan aurkeztean.





**βilaketa,**



**Caja Vital** de Vitoria y Álava



CONSERVATORIO SUPERIOR  
DE MÚSICA DE NAVARRA



Orquesta de Extremadura  
**Jesús Amigo** Director Titular y Artístico



*Real Conservatorio  
Superior de Música de Madrid*



Sociedad Filarmónica de Burgos



Sociedad Filarmónica de  
Pontevedra

**SOCIEDAD FILARMÓNICA de VIGO**  
Avda. Comelidas, 52 36900-Vigo, 363044  
36211 VIGO

Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentua  
Pablo Sarasate Nazioarteko Biolin Lehiaketa  
Navarrería, 39. 31001 Iruña. Espainia.  
Tel.: (34)848424683/(34)848424718. Faxe: (34)848424728  
[http:// www.cfnavarra.es/sarasate](http://www.cfnavarra.es/sarasate)  
Helbide elektronikoa. [violin@cfnavarra.es](mailto:violin@cfnavarra.es)

EL CONCURSO ES MIEMBRO DE LA FEDERACIÓN MUNDIAL  
DE CONCURSOS INTERNACIONALES DE MÚSICA

THE CONTEST IS A MEMBER OF THE WORLD FEDERATION  
OF INTERNATIONAL MUSIC COMPETITIONS